

**Western Basque
Festival**
Mendebaldeaz ez
genekiena

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Etxebarreko "üngü-
rüa": Basabürüko
mendien xerka

ARGIA

erdiko kainera

kultura eta aisia

Katamalo

Gotzon Barandiaranek liburua plazaratu du, Bihotz Bakartien Klubak (BBK) diskoa. Susa argitalextearen eskutik lehena, Gor disketxearenetik bigarrena. Katamaloak erantztea dute helburu, edo horiek agerian utzi eta gogoeta eragitea behintzat. *Arrakalak* zarratu ostean, inoiz baino musikalago datorkigu BBK, taldea bera ere abagunerako zabalduta.

OIER GUILLAN

Argazkiak: Alex Larretxi





Mozorroa eranzteko moduak

IKUSIKO DITUZU bata bestearen alboan, lerro bakarrean, argi xumeen azpian. Ikusiko dituzu musika tresnak soinean hartzen. Entzungo dituzu haien ahotsak, hitz egiten, xuxurlatzen, sentimenduak urratzen. Entzungo dituzu zure orotzapen propioen islak haien hitzetan. Entzungo dituzu baina batez ere sentituko dituzu. Eta hunkitu egingo zara agian.

Proiektu zabala da *Katamalo*. Gotzon Barandiaranek idatzitako hitzak ditu abiapuntu Bihotz Bakartien Klubaren eskutik sortu den ikuskizunak. Zenbait emanaldiren ostean etorri dira, eta ez lehenago, *Katamalo* liburua eta diskoa. Proiektu hau erreala izateko zenbait kide gehitu zaizkie BBKko ohiko musikariei, haien artean Gorka Urbizu Berri Txarrak taldeko abeslaria, erritmo biziagoetan erakutsi ohi duen ahotsaren indarra doinu apalago baina intentsitate berekoetara eramateko erronka bere gain hartuta.

“Katamalo” hitza kareta edo maskara esateko erabiltzen omen zen Bizkaia aldean. Zertarako mozorrotzen gara? Zertarako janzten dugu katamaloa? Galdera horiei erantzun nahirik abiatu zituen Gotzon Barandiaranek liburua osa-

tzeaz gain diskoko kantuen oinarria ere badiren testuak. “Gezurra egiazat esateak asko kezkatzen ninduen. Gai politiko eta sozialetan oraindik asko arduratzen nau nola saltzen diguten gezurra egia modura, jakinda gezurra dela. Amorrutza sortzen dit eta horri buruz idazteko beharra izaten dut. Giza harremanetan ere horretara jotzeko ohitura dugu”.

Diskoa

Zortzi kidek parte hartu dute *Katamalo* proiektu musikalean: Alex Arregi (gitarra eta ahotsa), Gotzon Barandiaran (hitzak eta cuatroa), Itsaso Etxebeste (baxua), Aintzina Lekue (biolina), Gorka Mugarza (akordeoia), Jon Piris (kontrabaxua diskoan), Gorka Urbizu (gitarra eta ahotsa) eta Nerea Urbizu (pianoa, ahotsa eta kajoia).

Gorka Urbizuk argi du proiektuaren abiapuntu literarioa dela. “Poesiaren bidez ezagutu genuen elkar Gotzonek eta biok. *Arrakalakekin* eginiko ibilbidea aurretik jarraitu nuen, besteak beste Ubeda anaiek egin zuten poesia eta musika uztartze hori beti erakargarri egin zaidalako, eta aukera sortu zen *Katamalo*ren bidez barne jakin-

min hori kanpora ateratzeko”. Urbizuk lan handia egin du diskoarekin, sormenean nahiz Karlos Osinaga teknikariarekin batera eginiko ekoizpenean, baina edonola ere hasieratik talde izaera azpimarratu du. “Diskoan kantu batzuk nireak dira, baina bada Alex Arregirena den bat, Nerea Urbizuren beste bat...”.

Zuzenekoetan sarrera literarioak egiten ditu Gotzon Barandiaranek, kantuekin tartekatzen direnak. Diskoan zazpi abesti bildu badituzte ere, gehiago dira emanaldietan entzun daitezkeenak. Urbizuk aipatu duenez “hasieran asmoa poesia horiek kaleratzea zen, musikaren bitartez. Gero ikusi genuen gauzak itxura ona hartu zuela eta merezi zuela kantuak etxean lasai entzuteko aukera ematea. Lan xumea da, baina uste dut disko laburrak ere baduela bere xarma”.

Esperientzia baten ahotsak

Katamaloren hamabi bat emanaldi eskainiak zituzten diskoak eta liburuak euren ibilbidea hasi aurretik, besteak beste Korrika Kulturalaren barruan. Egitasmo honek ekarri du Bihotz Bakartien Klubaren emanaldi berria inoiz baino musikalgogoia izatea, errezitaldiaren kutsua mantendu badu ere.

Alex Arregik kasu, argi du abagunea: “Hasieran disko eta libururik gabe ibili gara. Gure arteko ezagutza landu dugu orain arte, emanaldiaren egituratzea. Orain patxada handiagoz ari gara jada, oinarria badago, beste zer edo zer pentsatzeko edo sortzeko ordua da”. Esperientziarekin talde egituraren sakontzea lortu dute apurka eta horrek guztiak izan du eragina emanaldietan Gorka Urbizuren ustez. “Diskoa nahiko duin atera dela uste dut, saioak aurrera egin ahala sumatzen da enpastuago gaudela”.

Gorka Mugarzak ere talde espiritu hori azpimarratu du. “Gure artean giro ona egon da, ez da izan halako elkarketa behartua. Saioetatik azpimarratuko nuke ez dutela forma itxia, aldaketarako aukerak egoten direla, ez dagoela beti abesti kopuru jakin bat... Edozein saiotarako balizko kolaborazioak eta moldaketak egiten ditugu”.

BBKren lehen emanaldietan errezitaldia zen nagusi, nahiz eta musika tarteka ere present egon. *Arrakalak* izan zen aurreko erreferentzia, Mugarzak dioenez: “Ez

“Hasierako asmoa poesia kaleratzea zen, musikaren bitartez. Gero ikusi genuen gauzak itxura ona hartu zuela eta merezi zuela kantuak etxean lasai entzuteko aukera ematea”

dakit zenbat emanaldi izan ziren, asko. Orduan poesia gehiago sartzen zen eta laburmetraia animatu batzuk ere proiektatzen ziren”. Aintzine Lekuek ere *Arrakalaken* parte hartzen zuen musikari gisa. “Batean zein bestean poesia da garrantzia daukana, baina *Arrakalaken* musika bigarren planoan gelditzen zen. Bazeuden kantu batzuk baina testu irakurria zen gehiena, musikak lagunduta”.

Musikatik poesiara doan bidea izan, ala alderantziz, bat egin dute biek. Gorka Urbizuk oroitzen duenez “Gotzonek buruan sartuta zeukan hori, poesia ondo dagoela baina zuzenekoan jendeak benetan pentsatzeko edo barnertatzeko letrak musikarekin askoz ere eraginkorragoak direla. Hasieran behintzat nik lan literarioa egin nahi nuen musikatik nentorrelako, eta berak berriz, hamar hamabi kanturekin ikuskizun musikalgogoia zuen buruan. Kantua eta poesia elkartzea, dena den, ez da gauza berria, ez gara lehenak ez eta azkenak ere”.

Edonola ere, hitza eta musika baino gehiago bada *Katamalo* Gotzon Barandiaranek testuotan kezka batzuen isla eskaintzen duen heinean. Musikariek ere aintzat hartu dute hori sortze prozesuan, Urbizuk berak aipatu duenez. “Berez hitzak Gotzonenak dira baina niretzat pertsonalki

kontzeptuarena izan zen baietz esatera bultzatu ninduen amua. Gaia oso zabala ikusten dut, eta aldi berean unibertsalia; egunero denok bizi duguna edo ikusten duguna: geuk ere badaukagula itxurakeria puntu hori, alegia. Gaiarekin musikalki jo dezakezu ironiara, aitortzara... Ez da kantu molde batera lerratzen, aukera ezberdinak ematen ditu”.

Alex Arregi ere ildo berean mintzo da: “Guztiok motibatuta gaitu horrek: kontzeptua buruan duzula aritu gara musika egiten”.

Nerea Urbizuk ere hitzen garrantzia azpimarratu du: “Kantu bakarra egin nuen, baina letrak hain serioak izanda errespetua ematen zuen konposatzeko garaian, gauza txukun bat egin nahi zenuen”.

Letretan ere elkarlana egon da; horren adibide izan liteke *Katamalo* kontzeptuan oinarrituta Maialen Lujanbiok idatzi eta zuzenekoetan kantatzen duten koplak sorta. ■

GORKA URBIZU



Gotzon Barandiaran

«Poesiaren transmisore oso ona da musika»

Orain bi bat urte ekin zenion *Katamalo* kontzeptua lantzeari. Gero etorri ziren kantaldi-errezitaldiak. Liburuak eta diskoak zer dira, helburu bat betetzea edo pausaleku bat?

Liburua orain bi urte idazten hasi nintzen jakin gabe zuzeneko emanaldiak egingo ote genituen, are gutxiago diskorik aterako ote genuen. Hori azken orduko apustua izan da. Barruan nituen gauza asko atera behar nituelako hasi nintzen idazten. Bilkada batez liburuaren hezurdura izan zena idatzi nuen, gerora etorri zen Gorka Urbizurekin bat egitea literaturaren bitartez. Berak ere idatzi egiten du eta bere idatzi batzuen inguruan berbaz ari ginela esan zigun gustatuko litzaiokeela elkarrekin zerbait egitea, Gorkak ezagutzen baitzuen BBKren lana. Lehenengo prozesua izan zen beraiei poemak pasatzea, jatorrizkoan zeuden bezala. Beraiek egin zuten aukeraketa. Gero testu batzuk moldatu behar izan nituen kantuen egiturara. Zuzenekoetan poema batzuk aldatu egin ditut, egoeraren, publikoaren edo aldartearen arabera, eta beste batzuk sortzen ari naiz hauen harira. Zuzenean ari zarenean publikoarekiko harremanean ezin duzu zurruna izan.

Arrakalak liburuari loturiko emanaldiak plaza ugari ezagutu zituen. Ordukoan ere musika bazegoen, grabazio bat egin zen amaitzean, uzta propioa zen ardatza... *Katamalo* ulertzeko funtsezko inflexio puntua izan al zen?

Bai. Azken finean aukera asko daude, bat izan daiteke poesia hutsean ematea entzuleari. Niri hori gogorra iruditzen zait, entzule moduan ere, uste dut horretarako liburu dagoela. Zuzenekoetan beste zerbait eskaini behar duzu. Kontuan hartu behar duzu minutu eta erdiko gauza bat dela, entzuleak hartuko du berba bat, ideia bat, esaldi bat, sentsazio bat... Zuzenekoan hitzak musikatzea da guk egin dugun aukera, baina hori ez da gauza berria. Poesia beti kantatu da, gure kantutegi zaharra, bertsoak... poemak dira. Modernitate honetara ekarrita nik Bernardo Atxagaren *Etiopia* liburuari Ruper Ordorikaren *Hautsi da anphora* diskoaren bitartez ezagutu nuen, eta Otamendiren poema asko buruz dakizkit Bide Ertzearen kantuengatik, Sarriandiarenak beste hainbeste, Leterenak, Lauaxetarenak... Kantatuak ez diren poemak oso gutxi gogoratzen ditut. Argi dagoena da musika trans-



misore oso ona dela. *Arrakalaken* horretaz konturatu ginen, ikusten genuen kantu ziren poemak jendeak hobeto hartzen zituela. Apustua egin behar duzula uste dut, ahalik eta gehien transmititzera eta ahalik eta gauza gehien helaraztera. Bestela liburu dago, ez duzu zergatik agertokira igo.

Katamalo kontzeptuak aurpegi asko izan ditzakeen kezka islatzen du. Nora begiratu duzu lantzerakoan?

Barrura lehenengo eta gero ingurura, edo igual bietara batera. Asko kezkatzen nau bizi dudana egoerak, bizi naizen herriak, herri honen gatazka politikoak eta sozialak, ekonomikoak, harremanek... Gai hauei buruz nik nola jokutzen dut? Zintzoa naiz? Pentsatzen dudana esaten dut? Garbi jokutzen dut? Edo interesen arabera? Beste batzuek horrela egiten dutelako... Nire jarrera eta beste batzuen jarri ditut hartu-emanen, gai sozialekin lehenbizi eta gero harremanekin. Ni neu badakit batzuetan era batekoa naizela eta besteetan beste era batekoa, ez dudala esan beharreko guztia behar denean esaten, beste era batera esan edo ixildu egiten dut... Hori da *Katamalo*.

Zer garrantzi izan dute BBKtik eta Literatura Eskolatik egindako proiektuek zure prestakuntzan? Irakurle figuratik abiatu dira biak.

Nik uste dut abiapuntua izan direla, eskaini zigutela testuinguru bat, lurralde txiki bat, eta pizgarri bat ere bai. Sinestea, alde batetik beharra bazegoela beste eskaintza mota bat egiteko. Bazeuden eskaintzak baina gureak uste dut beste zerbait ekarri zuela talde bezala funtzionatzen genuelako, ez zelako zerbait indibiduala. Literatura Eskolan erreferentzia pila jasotzen ari gara, asko ari gara ikasten literaturaz, euskal literatura ezagutzeko balio du, harreman sare oso zabala eskaintzen digu hartu-emanen oinarritutako proiektuak aurrera ateratzeko. BBK Larrabetzun txokotuta zegoen eta gaur egun uste dut ez daukala mugarik Euskal Herrian. Idatzi bai, beti egin izan dut, baina ez ezer argitaratzeko. Irakurlea ere izan naiz beti, baina ezin da ulertu ni literaturan hastea BBK eta Literatura Eskola sortu ez bagenu. ■